

txintxarri

Agurra, herrikideen berotasunean

Michelingo pilotalekuan jokatu du ibilbide profesionaleko azken partida Axier Arteagak; hasi aurretik eta ostean aitortzak jaso ditu / 10

TXINTXARRI

Musika eta aldarrikapena

Emakumeak oholtzak hartzeko helburuarekin sortu da Elektropottote taldea. Kontzertuak eman eta eman ari dira / 6-7

Okendo plazan batu dira Euskaraldian parte hartuko duten entitateak; talde argazkia atera dute / 3

Egun batzuez Erdi Arora itzuli da Lasarte-Oria: Xacobeo azokak hartu du erdigunea / 4

Intza Kirol Elkarteak gogotik ospatu du 75. urteurrena, herritarrekin batera, pilota ardatz hartuta / 5

Futbol eta saskibaloitza taldeek emaitza ezberdinak izan dituzte denboraldi hasierako neurketetan / 11

Lau herritar lehiatu dira Jaizkibelgo igoeran; Aitor Manso hirugarren postuan sailkatu da / 12

Badator Euskararen 10. Maratoialdia!
LASARTE-ORIA 2022ko URRIAREN 22-23tik ABENDUAREN 2ra

sentitu  **prestatu**  **eta ekin!** 

EUSKARAREN MARATOIALDIA 



TEK Lasarte-Oria eta Basaundiko egitasmoak aurkeztu dituzte erakundeetako ordezkariak. TXINTXARRI

Energia komunitate handiena, udalerrikoa

Lasarte-Oriako sei eraikin "estrategikotan" plaka fotovoltaikoak jarriko dituzte, haien bidez "energia garbi eta berriztagarria" biltzeko. Egitasmo horrek "benetako erreferente" bilakatuko du gure herria, "trantsizio energetikorako bidean"

Txintxarri

Herrian zehar "estrategikoki" kokatuko dituzten sei instalazioren bidez, udalerrikoa biztanle guztiarentzat energia trantsizioa ziurtatuko duen energia komunitatea (TEK) eratuko dute Lasarte-Orian. 1.000 familia eta denda hornituko ditu azpiegitura horrek, eta aurreikuspenen arabera, lanak hamar hilabeteren buruan egingo dituzte. Horrekin batera, Basaundi auzoaren energia leheneratuko dute, lur eremu batean plaka fotovoltaikoak instalatuta. Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Next Generation funtsak diruz lagunduko dituzte bi egitasmoak; inbertsioa 1.500.000 eurokoa izango da.

Okendo plazan aurkeztu dute Lasarte-Oriako energia komunitatea, TEK izenekoa. Bertan izan dira Agustin Valdivia alkatea, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta

Garraio sailburu Iñaki Arriola eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako diputatu Jose Ignacio Asensio. Hiruek nabarmendu dutenez, proiektu horrek "benetako erreferente" bihurtzen du udalerrria, "trantsizio energetikorako eta energia eredu berriak sortzeko bidean".

Lasarte-Oriako TEKak udalak utzitako sei eraikin izango ditu; panel fotovoltaikoak jarriko dituzte bertan. "Instalazio horiek estrategikoki hautatuta daude, auzo eta eremu guztietara energia garbi eta berriztagarriko sarbidea bermatzeko, autokontsumorako erregimenean", zehaztu du

PLAKAK JARTZEKO LANEK HAMAR HILABETE IRAUN DITZAKETELA AURREIKUSI DUTE

Valdiviak. Sustatzaileen aurreikuspenen arabera, azpiegitura horrek herriko 1.000 familia eta denda hornituko ditu, eta horri esker, argindarraren fakturan %30 aurreztuko dute.

Plakak eremu hauetan jarriko dituzte: Michelin kirol gunea, Garaikoetxea-Landaberri ikastola, Sasoeta ikastola, Zumaburu ikastetxe publikoa, Zabaleta frontoia eta Basaundi auzoa. 4.700 metro koadroko azalera erabilgarria izango dute, eta 1.476 panel jarriko dira. Agerraldian azaldu dutenez, 545 kilowatt (kW) inguruko potentzia emango dute, eta energia "%100 berriztagarria eta deskarbonizatua" izango da, Asensioen hitzetan. "13.600 megawatt orduko (MWh) karbonorik gabeko energia osatuko dute, eta horrela, atmosferara 3.500 karbono dioxido baino gehiago isurtzea saihestuko da. Horren baliokidea litzateke Lasarte-Orian 14.000

zuhaitz landatzea 2030era arte". Ingurumen diputatuaren ustetan, herritarrek "rol aktiboa" hartzen dute trantsizio energetikoaren prozesuan, "komunitatea eratuz eta kultura energetiko berri bat sortuz, non pertsonek ahalmen handiagoa eskuratzen duten eredu tradizionaletan baino".

Valdiviak balorazio oso positiboa egin du: "Zalantzarik gabe, aukera paregabea da energia berriztagarrien trenera igo eta gure karbono azterna murrizteko; herritarrek klima aldaketaren aurkako borrokan parte hartu behar dute, eta abagune ezinhobea da energia komunitatearena, eguzkiaren indarraren apustu irmoa egiten duelako".

Basaundiko proiektua

Energia komunitateari buruzko xehetasunak eman eta gero, Basaundi auzoko energia onera ekartzeko lantzen ari diren proiektuaren berri eman du Arriolak. "Bizitegi eraikinetako birgaitze, irisgarritasun eta energia efizientziako jarduketak" barneratuko ditu, besteak beste. Eusko Jaurlaritzak 850.000 euro inbertituko ditu 1.100 metro koadroko eremu batean, instalazio bat eraikitzeko; 266 eguzki plaka jarri ahaliko dituzte bertan. 120 kWko potentzia eman eta 180 bat erabiltzaile izango ditu (etxebizitza eta saltokiak). Horrez gain, bateriak jarriko dituzte, energia gehiago bildu eta biltegitatu ahal izateko. Halaber, soberakin horiek aprobetxatzea proposatzen du proiektuak, auzoan "mugikortasun elektrikoa" sustatzeko: ibilgailuentzako lau eta bizikletentzako bost karga gune jarriko dituzte.

"Autokontsumorako energia komunitateak herritarren parte hartze aktiborako ate irekia dira", adierazi du Arriolak. "Komunitateari onura ekartzen diote, jasagarritasuna horrela bermatzen delako ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren aldetik". Sailburuak gogorarazi du Euskal Autonomia Erkidegoak "energia mendeotasun handia" duela, %90etik gorakoa, eta horri "konponbidea" eman behar zaiola. "Premiazkoa da gure energia propioa sortzea ahalbidetuko diguten neurriak hartzea; horretarako, funtsezkoa da herritarren konpromisoak eta maila guztietako politika publikoek bat egitea".

Lasarte-Oriako energia komunitatea



Michelin kirol gunea

Potentzia: 120 kW. **Azalera erabilgarria:** mila metro koadro. **Eguzki**

plaka kopurua: 266. **Irismena:** 180 etxebizitza eta denda.



Basaundi.

Potentzia: 120 kW. **Azalera erabilgarria:** mila metro koadro. **Eguzki**

plaka kopurua: 266. **Irismena:**

180 etxebizitza eta denda.



Garaikoetxea-Landaberri ikastola

Potentzia: 110 kW. **Azalera erabilgarria:** mila metro koadro. **Eguzki**

plaka kopurua: 245. **Irismena:** 165 etxebizitza eta denda.



Sasoeta-Zumaburu ikastola

Potentzia: 85 kW. **Azalera erabilgarria:** 700 metro koadro. **Eguzki**

plaka kopurua: 190. **Irismena:** 125 etxebizitza eta denda.



Zabaleta frontoia

Potentzia: 75 kW. **Azalera erabilgarria:** 750 metro koadro. **Eguzki**

plaka kopurua: 110 etxebizitza eta denda.



Zumaburu eskola

Potentzia: 35 kW. **Azalera erabilgarria:** 250 metro koadro. **Eguzki plaka kopurua:** 78.

Irismena: 80 etxebizitza eta denda.



Euskaraldian aritzeko izena eman duten herriko hainbat eragilek argazkia atera dute Okendo plazan. TXINTXARRI

Aritzeko prest dira herriko entitateak

10. Euskararen Maratoialdiari begira ari dira dagoeneko herriko hainbat entitate. 46k eman dute izena oraingoz, eta Okendo plazan elkartu dira talde argazkia atera eta oraindik izena emateko daudenei parte hartzerantz deitzen.

Txintxarri

Ederra dator udazkena Lasarte-Orian. 10. Euskararen Maratoia ospatuko da urriaren 22an eta 23an, eta Euskaraldiaren hirugarren edizioa ondoren. Bi egitasmo horiek uzartuta, 10. Euskararen Maratoialdian murgilduko da herria.

Euskaraldian, pasa den edizioan bezala, elkarte, erakunde eta enpresek entitate gisa aritzeko aukera izango dute. Euskaraz lasai aritzeko ariguneak identifikatuko dituzte, eta aktibazio ariketa bati erantzun beharko diote. Hamabost egunez euskaraz hitz egiteko gune seguruak sortuko dituzte, eta bertan parte hartuko duten

norbanakoak Ahobizi eta Belarriprest gisa ariko dira.

Dagoeneko, izen emanda daude Lasarte-Oriako hainbat entitate. 46 dira oraingoz, horien artean daude herriko establezimenduak, elkarteak, enpresa handiak eta gainerako eragileak, eta Okendo plazan batu ziren hilaren 21ean, talde argazkia ateratzeko. Hitzordu hori baliatu zuten oraindik izena emateko dauden entitateei egitasmoan parte hartzerantz deitzen. Horrekin bat egin dute Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak, eta eskerrak eman dizkiete dagoeneko dinamikan izen eman dutenei.

Entitate izateko inskripzio kanpaina martxan da, eta

horretarako, bi bide dituzte: alde batetik, aurreko edizioan izena eman zutenek honako helbidean berretsi dezakete aurtengo parte hartzea: <https://ariguneak.euskaraldia.eus/>. Aldiz, parte hartuko duten lehen aldia bada, <https://ariguneak.euskaraldia.eus/izen-ematea/> webgunea erabili beharko dute izena emateko. Urriaren 31ra arte izango da horretarako aukera.

Edozein zalantza izanez gero, honako bide hauek erabil ditzakete interesdunek horiek argitzeko: 943-37 61 84 Euskara Zerbitzuko telefono zenbakia; edo, 943-37 14 48 Ttakun Kultur Elkartekoa. Kontsultagarri dago baita ere www.euskaraldia.eus web ataria.



NEURE KABUZ

GORKA LASA

Eskutik helduta

Goiz da, uda amaiera izan arren frexko egiten du. Kafe bat hartzerantz kale izkinako tabernara, ea pixka bat suspertzen naizen, eta bide batez nagiak eta gogo ezak alboratzen ditudan.

Ikastolara bidean eskutik helduta doazen ama-alaba batzuekin gurutzatu naiz; hemendik aurrera ohiko ordua, ohiko bidea, ohiko era izango da, bata babesle eta bestea babestutakoaren plazerean. Kafe hutsa eskatu dut taberna barruan goxoago egotearen eta kafe kikara ondoan azukre sobretxo bat jarrita, hurbildu zait zerbitzaria. Nik azukrerik eskatu ez arren, ohiturak ohitura halaxe ekarri dit. Bata gozo bestea mingots, bata zuri bestea beltz, baina hauek ere eskutik helduta elkarrekin zerbitzatzen dituzte.

Tabernatik atera eta egin beharreko erosketak egitera hurbildu naiz supermerkatuara. Saskia hartu eta han hasi naiz pasiloetan aurrera eta atzera, hau hartu eta bestea utzi, hau garesti eta bestea garestiago.

Ordaindutakoan konturatu naiz poltsa erdi hutsa eta poltsikoa erabat hustuta dudala. Ekoizle txikia, abeltzain eta baserritarren miseria, tamalez, saltoki handi eta bitartekarien aberastea ere eskutik helduta datoz.

Etxera itzultzean sakon hartu dut arnas, egoeraz jabetzeko premia; uda amaiera izanik oporrak bukatu zaizkit, lanean hasi eta egunerokotasunean murgildu. Iraila eta ikasturte berriaren hasiera eskutik helduta datoz. Beraz, animo eta eutsi goiari.

Gaztekluba eta Kuadrillategi egitasmoak martxan dira

Ikastaro berriarekin batera dator Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean antolatzen duten gazteentzako aisi eskaintza. DBH1, DBH2, DBH3 edota DH4ko ikasleentzako Kuadrillategi izango da aurtengo, eta bertan parte hartu nahi dutenek, hilaren 28a baino lehen eman beharko dute izena. Horretarako honako bide hauek dituzte: <https://labur.eus/kuadrillategi> helbidea, ktglasarteoria@ttakun.eus helbidea elektronikoa, edo 943-37 14 48 telefono zenbakia.

Ostiralero izango dira saioak, bi ordukoak, eta irteera bereziak ere egingo dituztela iragarri dute: egunpasak, asteburupasak, eta abar.

Gazte Klubak ere ez du hutsik egingo. LH3-4-5-6ko ikasleentzako da eskaintza hori. Ostiralero elkartuko dira horiek ere, 17:30etik 19:00etara. Lagunartean sukaldaritza, magia eta eskulanak egingo dituzte parte hartzaileek, eta horrekin batera, natur ekintzak, kirola, esperimentuak eta abentura jolasak ere bai. Asteburu eta oporraldietarako ekimen bereziak eta irteerak izango direla aurreratu dute antolatzaileek.

Egitasmo horretan izena emateko azken eguna hilaren 30a izango da, eta horretarako aisia@ttakun.eus helbidera mezu bat idatzi behar da, edo 943-37 14 48 telefono zenbakira deitu. <https://labur.eus/gzk2223>-en ere egin daiteke inskripzioa.

EUSKARALDIA

HITZ EKITEKO GARAIA
sentitu, prestatu ... eta ekin!

Establezimendu komertzialen eta zerbitzuen artean, hauek dira oraingoz izena eman dutenak: Amaraya, Berasategi Kafeak, Bikain diseinua, Electricidad Arregui, Eli Lasa farmazia, Maite Erkizia ile-apaindegia, Oihana Estetika,

Orbela belar-denda, Ormazabal loradenda, Plan B kafetegia, Saltogela psikomotrizitatea, Suria Zentroa eta Uruzola mertzeria.

Elkarteak: Asunak, Dinbi Banda Aisialdi Elkarte, Erketz EDT, Intza KE, Kukuka, Lasarte-Oriako Bilgunea, Lasarte-Oriako irakurle txokoa, Lasarte-Oriako transmaribollo kolektiboa, Ostadar SKT, Sorgin Jaiak, Xirimiri, Xumela eta Zabaleta Auzolan Elkarteak.


Enpresa eta erakunde handiak: Aldaz Hortz Klinika, Aldika, BBVA, Caixabank, Eroski, Gureak, Kutxabank, Laboral Kutxa, Matia Fundazioa, Setalde eta Telesonic.

Horietaz gain, Lasarte-Oriako Udalak, Ttakun Kultur Elkarteak eta irakaskuntza alorreko eragile hauek guztiek: Andre Joakina haurreskola, Sasoeta-Zumaburu ikastetxea, Landaberri guraso elkarteak, Landaberri ikastetxea, Muntteri-AEK euskaltegia eta Oriarte institutua.

Gazte Kluban
izena emateko:



Kuadrillategin
izena emateko:



Lasarte-Oria, Erdi Aroko giroz beteta

Herritarrek Erdi Aroko VI. Xacobeoko Azokaz gozatu dute, erdigunean: salmenta eta elikagai postuak, kale ikuskizunak, ipuin kontalaria, erakusketak...denetik izan dute aukeran. Okendo plaza eta inguruetan izan da aurten feria, pandemiaren aurretik bezala

Txintxarri

Zenbait mende atzera egin eta eskulangileen ogibideek duten balioaz jabetzeko aukera izan zuten lasarteoriatarrek. Askotariko salmenta postuek, erakusketek, lanean aritu ziren artisauek, jolasak eta ikuskizun bereziek hartu zuten erdigunea.

Ohiko kokalekura bueltatu da azoka aurten, pandemiak eragindako gorabeheren ondoren. Kale Nagusia ez zuten itxi, eta salmenta postuak, jolasak edo erakustaldiak Okendotik abiatzen zen ibilbide zirkular bat osatuz jarri zituzten, Askatasun parkea, ibai ertza eta Brigitarren plaza ingurua hartuta.

Xaboiak, jakiak, mineralak, ehunak, bitxiak...erosteko aukera zabalaz gain, bestelakoak ere izan ziren bidean. Askatasuna parkean haurrentzako zenbait jolas jarri zituzten, baita Elkanoren mundu birari buruzko ikus-entzunezko bat. Horren ondoan, Erdi Aroko lanabesak eta bestelako tresnak ikusgai egon ziren.

Horrez gain, bestelako jarduerak ere aurrera eraman zituzten. asteburu osoan zehar. Ipuin kontalariak ibai ertzetik gertu izan zuen bere txokoa. Zoco arabean musika ikuskizuna izan zen, eta Te atraca la Callek musika eraman zuen azokan barrena.



Kale ikuskizunek txundituta utzi zituzten lasarteoriatarrek. TXINTXARRI



Jende ugari bertaratu zen Okendo plazako postuetara. TXINTXARRI

Jantziak egiten edo dantzatzen trebatzeko ikastaroak aukeran

Plaza Dantzan eta jantzi tradizionalak egiten ikasteko tailerren izena eman dezakete lasarteoriatarrek

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak jantzi tradizionalak josten ikasteko tailerra eta Plaza Dantza egitasmoa martxan jarriko dituzte aurten ere, lasarteoriatarrek

batean edo bestean (edo bietan) trebatzeko aukera izan dezaten.

Jantzi tradizionalei buruzko bi ikastaro emango ditu Ione Artolak, azken urteetan bezala, Emakumeen Zentroan. Urriaren 11n hasiko da lehenengoa,

asteartez, eta ostegunean bigarrena. Saioak 15:30etik 17:30era izango dira, abendu erdialdera arte. Izena eman nahi dutenek Ttakun KEren Kultura sailarekin jarri beharko dute harremanetan, kultura@ttakun.eus helbide elektronikora idatzi edo 695 78 53 89 telefonora deituta. Plazak mugatuak dira. Prezioak, hauek: Ttakuneko bazkide direnek 22 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez direnek, 25.

Bestalde, urriaren 4an jarriko da martxan Plaza Dantza

Intza Alkain herritarra Besarkada sarietarako izendatu dute

'Antzerkia' kategoriako emakumezko aktore onenaren aitortza irabaz dezake; bozketa epea, hilaren 30era arte

Txintxarri

Euskal Aktoreen Batasunak (EAB) aurtengo Besarkada sarietako hautagaiak iragarri ditu. Lasarteoriatar bat dago horien artean, Intza Alkain: *Antzerkia* kategorian emakumezko aktore onenaren aitortza irabaz dezake. Gainerako hautagaiak Ane Pikaza, Sandra Ferrus eta Miren Gaztañaga dira. Bozka emateko azken eguna hilaren 30a izango da, ostirala. EABra afiliatuta dauden pertsonak izango dute horretarako aukera.

Aintzatespen hori bi urtean behin antolatzen du EABk, eta 2020ko udatik 2022kora arte estreinatutako lanak izan dituzte kontuan aurtengo sariak prestatzerakoan. Tarte horretan estreinatu zuen *Album* obra Formol Laborategiak; antzezleetako bat da Alkain,



Intza Alkain. FORMOL KONPAINIA

Edurne Azkarate eta Mikel Iburgurenekin batera. Makina bat herritan oholtzaratu dute antzezlanak, eta oso harrera ona izan du. Lasarte-Orian ez dira izan oraindik.

The Gu eta Ezinezkoa taldeek dena eman dute Jalgiko oholtzan

Hilaren 17 eta 18ko asteburuko eskaintza musikari bere aletxoak jarri zion Jalgiko kafe antzokiak. The Gu eta Ezinezkoa taldeek zuzeneko bana eman zuten bertan eta ez ziren haiek entzutera bertaratu ziren musikazaleak falta izan. Aurreikusitakoa baino ordu erdi geroago igo dira oholtzara lehen musikariak, baina soinu probetarako jada zain zituzten zale batzuk.



The Gu taldearen emanaldia. TXINTXARRI



lazo jantziak bat. TXINTXARRI

asteartez, Sasoeta ikastetxeko gimnasioan. Entseguak astearte eta ostegunetan egingo dituzte, 20:00etatik aurrera. Koreografiak ikasi, gogoratu edo hobetzeko gogo duen donor bertaratu daiteke saioetara. Hilero-hilero, laugarren igandean, muxikoak egingo dituzte Okendo plazan. Inskribitzeagatik ez da dirurik ordaindu behar. Izena eman nahi dutenek ere Ttakun KEren Kultura sailarengana jo beharko dute, lehen aipatutako bideen bitartez.

Bide luze eta oparoa ospatzen

Intza Kirol Elkarteak 75 urte bete ditu 2022an. Halako urteurrenek badute berezitasun puntu bat eta gogotsu ospatu dute kideek orain arte egindakoa. Giro ederrean aurrera eraman dituzte jarduerak, nola ez, pilota protagonista nagusi izanda

Maitane Aldanondo

Sagardotegi kaleko egoitzan egin zuten lehen hitzordua Intzako kideek, hilaren 16an, pilotari buruz solasteko. Mahaiaren bueltan, Jokin Errasti, Mikel Unanue, Aniceto Lazkano eta Juan Mari Arteaga pilotari ohiak eseri ziren Axier Arteagarekin batera. Solasaldia gidatzeko ardura, berriz, Josetxo Lizartzak izan zuen. Haiek hasi ziren pilotaren egungo era nola ikusten duten azaltzen, baina aukera eman zieten bertaratu ziren dozena bat lagunei ere galderak egin edo iritzia emateko. Izan ere, Lizartzak aitortu bezala, maiz hitz egin dute elkarren artean gai horri buruz eta ondo dakite besteak zer pentsatzen duen, beraz, ikuspuntu berriak entzutea aberasgarria izan zen.

Hurrengo eguneko eguerdian danbor hotsek hartu zuten egoitza aurrealdea. Izan ere, bertatik abiatu zen ATLO elkarteko danborrada. Erdiguneko kaleetan barrena ibili ziren eta bi geldialdi

egin. Lehena, Elizatzen egin zuten. Bertan, hiru bat pieza jo zituzten, eta handik, Kale Nagusiko 8. zenbakirantz joan ziren. Han, martxak jotzeaz gain, atsedean hartu, argazkiak egin eta freskatzeko aukera izan zuten. Handik Pablo Mutiozabal kaletik kultur etxeraino bidea egin zuten, Geltoki kaletik abiapuntura bueltatzeko.

Buruhandiengandik ihesi

Ordu batzuk geroxeago, leku beretik irten ziren buruhandiak eta erraldoiak. Beroketa ariketa gisa, haur batzuek lasterketak egin zituzten ibilbidea abiatu aurretik, buruhandiren bati ihesi. Trikitilariak lagunduta, Loidibarren frontoira joan ziren herritar talde batek lagunduta. Haietako asko gelditu ziren Intza KEko pilota eskolako pilotariak jokatzeko ikusteko. Hasi berri direnek jolasetan parte hartu zuten; denbora gehixeago daramatenek berriz, binaka jokatu zituzten hiru partida. Igandean, berriz, senior

eta eliteko partida bana jokatu zuten.

Hala ere, horien aurretik hasi zituzten eguneko ospakizunak. 09:30ean ekin zioten txistulariek dianari eta seikotea herrian barrena ibili zen doinu alaiekin herritarrak esnatzen eta kaleak girotzen. Leiho eta balkoietatik entzuten edota kalean zeudenetako batzuen txaloak jaso zituzten bidean, 11:00etan Ama Brigitarren komentu aurretik pasatu ziren, herri mezarantz zihoazen azkenekin gurutzatu ziren.

Eta edozein ospakizunetan huts egin ezin duen zerbait bada, hori, janaria da. Elkarteko bazkideek eta gonbidatuek –Agustin Valdivia alkatea eta Txus Alonso kirol zinegotzia, kasu– Txus Aiestaranek eta Txemi Zulaikak prestatutako menua dastatzeko aukera izan zuten: arrain budina, perretxiko hostopila, itsaski krema, errazio erdi bana bakailao gratinatua eta masaila patata purearekin, eta amaitzeko, Intza kopa. Bazkalostean, argazki historikoz



Ezker-eskuin: Lazkano, Unanue, Errasti, Lizartza eta Arteaga aita-semeak. TXINTXARRI



Gaztetxoenek ederki pasa zuten buruhandiekin jolastean. TXINTXARRI



Jon Pello Artetxe, txokoan utzitako pilota bat eramaten. TXINTXARRI



Danborradako partaideek behin eta berriro zeharkatu zuten Kale Nagusia. TXINTXARRI



Intza elkarteko zenbait bazkide, mahaiaren esertzen. Bapo bazkaldu zuten. TXINTXARRI

Maddi Zaldua

Gehiegizko autoexijentziak eta beldurrak alde batera utzi, eta edonork bezainbesteko gaitasun eta balioa dutela sinetsiz, plaza hartzea erabaki dute Elektropottotte taldeko kideek. Musikaren mundu "maskulinizatuan" dagokien lekua hartu nahian ari diren 11 emakumek osatzen dute taldea, eta Sorgin Jaietan irten ziren lehen aldiz jendaurrera. Orduz geroztik, Euskal Herriko txoko ezberdinetan jotzeko eskaintza ugari jaso dituzte, eta hortan ari dira, euskal herritarrek dantzazten. Ez dira musikari guztiak lasarteoriatarrek, baina denen izenean, herrikoekin bildu da TXINTXARRI, taldea nola sortu zuten eta ari direnaz hitz egiteko.

Nola sortu da taldea?

Pandemia aurretik pentsatuta genuen taldetxo bat sortzea. Herriko hainbat lagun eta ezagun elkartu ginen eta udalari entseatzeko espazioa ere eskatua genion, baina, bat-batean, koronabirusak hartu zuen gure egunerokoa, eta gure asmo eta gogoak bazter geratu ziren. Osasun egoera hobetzen hasi zen arte ezin izan genuen ia ezer egin; horrek ekarri du taldea martxan jartzeko nahi baino denbora gehiago behar izatea. Oso frustragarria izan da; gogo izugarria genuen, baina aukerarik batere ez.

Pandemiaren egoera lasaitzen joan ahala eta murrizketak arinduta, bilera bat egin genuen. Bakoitzak bere asmo eta gogoen berri eman, eta martxan jartzea erabaki genuen. Helburu bat finkatuta amaitu genuen bilkura hura; Sorgin Jaietan lehen emanaldia eskaintzea, eta hortik abiatu da gure ibilbidea. Taldea osatzeko behar genituen kideak topatu eta emanaldira begirako entseguekin jarri ginen burubelari. Helburua finkatu aurretik batzen ginen elkarrekin jotzeko, baina aisia gisa bizitzen genuen.

Aprobetxatu nahi dugu azpimarratzeko gure proiektua ezinezko zatekeela herritarren laguntzarik gabe; baliabide gutxi genituen hasieran, eta hainbat instrumentu eta azpiegitura utzi dizkigute. Oso eskertuta gaude, ezingo genukeen hala izan ez balitz.

Taldekide guztiak emakumeak zarete eta hori ez da kasualitatea. Garrantzia eman diozue emakumeak oholta hartzeari.

"Emakumeok plaza hartzea izan da lehentasuna"

ELEKTROPOTTOTTE TALDEA

Sorgin Jaietan agertu ziren lehen aldiz jendaurrera, eta ustekabean, Euskal Herriko herri ugari jarri dituzte dantzan. Harrera ederra izan dute eta prest daude kontzertuak ematen jarraitzeko



Sorreran zazpi kideko taldea izan bazen ere, gaur egun 11 musikarik osatzen dute Elektropottotte. ELEKTROPOTTOTTE

Sorgin Jaietako antolakuntzan ari gara taldekide asko eta hori hausnartuz aritu gara denbora luzez. Errealitateari begira jarri garenean, konturatu gara ez dagoela emakume hutsez osatutako musika talderik gure herrian eta hori lehen lerrora ekartzea erabaki genuen, emakumeok plaza hartzea izan da lehentasuna.

Musika eskoletako ikasle gehienak emakumezkoak izaten garen arren, gero oholtzarako saltoa ematen duten gehienak

gizonezkoak dira. Formakuntza duen emakume ugari dago, baina gero, ez ditu behar dituen baliabideak aurkitzen agertokira saltoa emateko. Oso maskulinizatua dagoen mundu bat da. Horregatik, uste dugu garrantzitsua dela emakumeak plazak hartzea. Horrek eragingo baitu, besteak beste erreferente emakumezkoak sortzea... Aurrerapausorik ematen ez bada, betikoan geundeko.

Ekain amaierako lehen emanalditik etorri dira gehiago.

Sorgin Jaietako kontzertua izan zen hasierako helburu bakarra, eta ez genuen sekula imajinatuko lehen kontzertu hark atzetik etorri dena ekarriko zuenik.

Harrera ederra izan duzue beraz.

Bai. Lasarte-Oriako emanaldia eta gero sare sozialak martxan jarri genituen, eta orduz geroztik etengabe jasotzen ditugu han eta hemen jotzeko eskatzen diguten mezuak. Harriritu gaude gu ere.

Uste dugu taldekide guztiak emakume izateak ere eragiten

duela horretan, kontratazioetarako baldintza gisa hasi baitira hori ere zehazten, baina inondik inora ez genuen etorri den olatua espero. Hainbat momentutan hori kudeatzea ere zaila izan da. Bilera bat egin genuen egoera nola bideratuko genuen eta zer egin erabakitzeko; indarrak neurtuz, baina etortzen zenari eutsiko geniola adostu genuen.

Taldeak herrian harrera ona izatea espero genuen. Senideen, lagunaren eta herritarren artean ari baikara, baina, adibidez, hilabete honetan Lezon eman dugun kontzertuan jendearen erantzuna ikusita, sentitzen dugu, herrikan kanpo ere jendeak gustuko duela egiten duguna.

Olatu hori kudeatzea hainbat momentutan zaila izan dela diozue, baina ari zareten horretan jarraitzeko bultzada ere emango du, ezta?

Inolako zalantzarik gabe. Motibagarria da, datozen kontzertuetan aritzeko gogo handitu egiten da, eta polita da hori.

Aritu zarete, besteak beste Bernedon, Lezon eta Usurbilen. Non izango dira datozen kontzertuak?

Hilaren 30ean Andoainera joango gara, Euskaraldiaren aurkezpena, eta urriaren lehen berriz ere Lezon joko dugu. 7an, berriz, Xoxokako (Urnieta) festetan arituko gara. Euskararen Maratoialdian ere eskainiko dugu emanaldia, eta 29 eta 31n, Errenterian eta Astigarragan izango gara. Azaroaren 5ean, aldiz, Lazkaon joko dugu. Horiez gain, eskaintza gehiago ere izan ditugu, baina taldekideon lanak eta bestelako konpromisoak medio, ezezkoa eman behar izan dugu. Garbi dugu ez garela honetaz biziko, eta hori argi dugunez, presio handirik gabe ari gara. Gogoia dugulako joko ditugu kontzertuak, edonolako presiorik gabe.

Talde gisa nola antolatzen zarete?

Sorgin Jaietako emanaldia prestatzeko gutxienez astean behin entseatu genuen Gaztelekuko lokaletan, baina uda iritsi zen gero. Eskaintza dezente jaso genituen uztaileta abuzturako, baina taldekide bakoitzak gure uda antolatuta genuenez, erabaki genuen irailera arte ez genuela kontzerturik emango. Etenaldi hori baliatu dugu entseatzeko eta erreperitorioa osatzeko. Lehen emanaldian, 45 minutuko kontzertua eskaini genuen, eta,

orain, ordu eta erdiz aritzen gara.

Instrumentu motaren arabera entseguak ere egiten ditugu tarteka, eta orain, udako oporraldia amaituta, martxa hartzen ari gara. Entseatzeko lokal berri baten bila ere ari gara.

Orain arte Gaztelekuko lokaletan aritu zarete, baina lokal berri baten bila ari zarete diozue.

Orain arte entseguak bertan egin ditugun arren, ez dugu nahikoa espazio taldekide guztiak elkarrekin aritzeko; horregatik, Andoaingo gaztetxera joan behar izaten dugu askotan. Ikasturte hasierarekin batera egin behar da eskera hori udalean eta hala egingo dugu, nahiz eta jakitun garen herri honek gai horrekin duen arazoaz.

Talde ezagun askoren abestiak jotzen dituzue, eta abesti horien arteko nahasketak ere egiten dituzue, ezta?

Bai, nahasketak horiei *Mashup* deitzen zaie. Sortutako abestiekin egindako nahasketak dira. Tonalitate edo akorde progresio berdineko abestiak jotzen kantuen zatiak hartu eta elkartu egiten ditugu. Musika taldeen arabera sortu ohi ditugu mashupa horiek; adibidez, hartzen ditugu LOVG La Oreja de Van Gogh-en bizpahiru abestiren zatiak, elkartu eta horrela sortzen dugu gure emanaldirako pieza oso bat. Kantu osoak jotzen ditugu gehien, baina momentukako *Mashup*-ak tartekatzen ditugu.

Lan handia da 'Mashup' bat sortzea?

Bai, lana da. Tonu eta akordeak pentsatu behar dira, aukeraturako abestiak horietara moldatu, kanta zati batetik bestera zein lotura egin zehaztu, eta abar. Maider Rekondo eta Amane Mei Otaegi lehenagotik elkartzen zirenez, lantxo horietako batzuk aurreratuta zituzten eta horrek erraztu du egin beharrekoa. Oso gustuko ditugu eta jendeari ere asko gustatzen zaizkio, harritu ere egiten dira kanta elkarren artean lotzeko erabiltzen ditugun abestiekin.

Zein publiko erakartzen duzue?

Emakumezkoa da hein handi batean. Lezon, adibidez, emakumeak ziren ia denak,

"EZ GENUEN INOLAZ IMAJINATUKO LEHEN EMANALDIA ETA GERO OLATU HAU ETORRIKO ZENIK"

adierazgarri izan da hori. Uste dugu sortzen dugun giroarekin lortzen dugula emakumeok eroso sentitzea eta denek elkarrekin gozatzea. Horrek ez du esan nahi gizonetzako ez daudenik gure emanaldietan.

Eta zein abesti dantza ditzakete zuekin?

Ohiko abestietatik kanpo, oso erreperitorio ezberdina eskaintzen dugula uste dugu. Adibidez, jotzen dugu Rigoberta Bandiniren *Perra* eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin jarraitzen dugu gero; pentsa ze aldaketa. Las Ginebrasen *Con altura* ere jotzen dugu, eta, bat batean LOVG taldearekin sartzen gara.

Gure gustuko abestiekin osatzen dugu erreperitorioa. Introa [emanaldiari hasiera emateko musika pieza] ere oso esanguratsua da; Anje Duhalderen *Eperrak*-ekin hasi, eta Beyonceren *Crazy in Love*-ekin lotzen dugu. Horrela hasten dugu gure emanaldia. Originaltasuna badugu, eta saiatzen gara emakume musikarien abestiak jotzen.

Taldea handitu da zerbait sorreratik hona, ezta?

Bai, zazpi kide hasi ginen, eta, orain, 11 gara; horietatik sei lasarteoriatarak: Amane Mei, gitarra jotzailea; Jone Arroyo, tronpeta jotzailea; Maitane Rebe, saxofoi jotzailea; Irati Hernandez, kaxa jotzailea; eta Izar Agirretxe, dunbal jotzailea. Maider Rekondo taldekidea ere lasarteoriatarra da, baina ikasketak atzerrian egiten ari denez, momentuz ezin izango du gurekin aritu. Gurekin batera ari dira baita ere Ane Etxeandia, Itxaso Sanchez, Nagore Huizi, Maddi Cenzano eta Maria Mariezkurrena.

Taldea irekia da, eta gurekin aritu nahi duen inor bada, etor dadila lasai. Bakoitzak bere erritmora parte har dezake. Gurekin abesti bat jotzera animatzen den inor bada, ongietorria izango da edo soilik entseatzera etorri nahi duena ere bai.

Bide batez, elkarrizketa hau baliatu nahi dugu tronboia jotzen duen emakume baten bila ari garela jakinarazteko.

Izena lehen kontzerturako erabaki zenuen. Nondik dator Pottotte?

Buelta eta buelta ibili gara izena erabakitzeke. Taldetxoak sortzeko lehen pausuak ematen hasi ginenean, WhatsApp talde bat sortu genuen eta ElektroX izena jarri genion ixa horren lekuan

zer jarri ez genekielako. Trago bat hartuz izena erabakitzeke saiakerak ere egin genituen, baina ez genuen ezer garbirik atera hortik. Sare sozialetan ere eskatu genuen laguntza, baina ez zuen arrakasta handirik izan.

Konfinamendu garaian, Palmondo irratan entzundako esaldi batetik dator. Sendabelarren atal bat izaten zen, eta ukendua nola egin azaldu zuten irratsaio batean. Hortaz hizketan ari zirela, ukendua "pototan sartu" esan zuten. Izar eta bere lagunak esaldi horrekin zerbait sortu nahi zuten, eta hortik etorri da izena. Potota beharrean, Pottotte erabiltzea ikusi dugu hobe.

Soinean arropa eta osagarri dotoreak jantzita irteten zarete agertokira.

[Barre egin dute erantzuten hasi aurretik]. Kalean, egunerokoan jantzen ez ditugunak soinean jartzeko aukera ematen digu elektrotxarangak; kide bakoitzak nahi duena janzteko askatasun osoa du. Aspaldiko txandalak, arropa zaharrak, txapelak... Garbi genuen, adibidez, betaurrekoak erabiliko genituela. Jendaurrera ateratzeko sortzen duen ikara uneak arintzeko lagungarri dira.

Nola begiratzen diozue etorkizunari?

Momentuz, eskuarteak dauzkagun kontzertuekin ari gara burubelarri, eta etor daitezkeen zain. Eskaintzak jaso ahala eta gure disponibilitatea kontuan hartuta joango gara erabakitzen zeintzuetan parte har dezakegun eta zeintzuk baztertu.


Taldekide bakoitzaren herri edo hirian ere eman nahiko genuke kontzerturik. Lasarteoriatarak gara asko, baina badaude beste hainbat herri eta hiritako kideak ere, eta guri Lasarte-Orian jotzeak ilusioa egin zigun bezala, beraiek ere izan dezaten bizipen hori.

Kontzertuak emateko entseatzeko, hori da gure motibazioa. Hain azkar gertatu da dena, pentsatzeko ere tarterik ez dugula izan. Garbi dugu ez garela hontaz biziko, eta hori hala izanik, presio handiegirik gabe ari gara. Egiten dugunarekin gozaten jarraitu nahi dugunez, etorriko denaren zain geratzen gara.

"GUSTUKO DITUGUN ABESTIAK ETA HORIEN ARTEKO NAHASKETAK JOTZEN DITUGU EMANALDIETAN"



Elektropottoteko kideak hainbat emanaldietako irudietan. ELEKTROPOTTOTTE



Hauek dira elkarrekin burutuko ditugun ekintzak:		URRIA	Garapen psikoafektibo osasuntsua lehen haurtzar oan
AZAROA	Lehen sorospenak jaioberrietan	ABENDUA	Haurraren mugimendu askea eta seguroa
URTARRILA	Yoga jaioberri eta gurasoentzat	OTSAILA	Mugimendu librea, autonomia eta sozializazioa
MARTXOA	Adimen emozionala	APIRILA	Sendabelarrak eta emozioak
MAIATZA	Umeen akonpainamendu emozionala	EKAINA	Solido bidezko elikadura. Elikadura osagarria



Euskarari tokia egiteko lekua



Dena prest guraso eta hurrekin lanean hasteko



Lasarte-Oriako haurrak ahalik eta hiztun osatuena izatea da GurasoLeku egitasmoaren helburu nagusia. Horretara bideratuta eta familia tipologia desberdinetara egokituta dauden hiru programa barnebiltzen ditu: GurasoLagun, GurasoTegi eta GurasoLandia. Lehenengoan, euskaraz mintzatzeko gaitasuna duen pertsona bat (bidelaguna) elkartzen da horretarako ohitura ez duen batekin (bidelaria), azken horrek mekanismoak har ditzan. Bigarrenean, euskara eskolak jasotzen dituzte gurasoek, eta oinarrizko gaitasunak landu. Azkenik, hirugarrenean, beste bi ataletako gurasoak elkartu eta aisialdiko ekimenak egiten dituzte hurrekin; euskaraz hitz eginez gozatu eta familiarean tarte atsegin bat igarotzea dira helburuak. Proiektua oso errotuta dago Lasarte-Orian honezkero, 2014-2015 ikasturtean jarri baitzuten martxan.

GurasoLeku koordinatzeaz herriko hainbat erakunde eta eragile arduratzen dira, saretuta, bakoitzak bere eremutik lan egiten duelarik. Hauek dira: Sasoeta-Zumaburu eskola, Landaberri ikastola, Burunzpe Guraso Elkartea, Landaberri Guraso Elkartea, Andre Joakina Enea haurreskola, Munterri AEK euskaltegia, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordea eta Ttakun Kultur Elkartea.

Familiaren hizkuntza politikan eragiteko proiektu horren sustatzaileek GurasoLekuren hiru ataletako edozeinetan parte hartzera animatu dituzte familia lasarteoriatarak, eta azpimarratu guraso orok duela tokia bertan. Lehen esan bezala, inskripzioak hilabete honetan zehar egingo dituzte; horretarako, eskuorriak banatu dituzte herriko ikastetxeetan, eta hilabete amaieran jasoko, urrian ekiteko GurasoLagun, GurasoTegi eta GurasoLandia programei.

2, 3,
4 eta 5
urteko
haurren
gurasoentzako
eskaintza

Hauek dira elkarrekin burutuko ditugun ekintzak:

	HH2 Ipuinak, sentimenduak,...	HH3 Natura	HH4 Sortu eta egin	HH5 Komunikazioa eta gorputz adierazpena
URRIA	Sehaska kantak	Natura-jolasak	Istoriak asmatu	Kirola
AZAROA	Emozioak: Maitasuna	Birziklapena	Musika egin	Antzerkia
ABENDUA-URTARRILA	Ipuinak: Koloriak	Animalien aztarnak	Mozorroak sortu	Dantza
OTSAILA	Masajea	Natura-artelana	Artelanak egin	Hizkuntzak
MARTXOA	Emozioak: Haserre	Animaliak, maketak	Jostailuak asmatu	Plastika
APIRILA	Ipuinak: Animaliak	Ukenduak	Errezetak egin	Gorputz adierazpena
MAIATZA	Ekintza berezia	Ekintza berezia	Ekintza berezia	Ekintza berezia



GurasoLagun

Iazko erreportajea egiterakoan elkarrizketatu genuen Blanca Montero: GurasoLagun egitasmoan izena eman eta bertan hastear zegoen. Helburua hauxe: euskara maila hobetu eta semeari transmititu ahal izatea.

Berriz jo dugu harengana aurten, eta kontatu digunez, "berehala" nabaritu zuen hobekuntza. "Beste bi amekin osatu nuen taldea, Nuria eta Elirekin; oso erraza izan da haiekin geratzea, eta txikiek ere

elkar ezagutzen zuten. "Segituan nabaritzen duzu aldaketa, haiekin hitz egiteko hizkuntza aldatu behar duzulako; orain ere, kalean ikusten dudanean, euskaraz aritzen naiz beraiekin". Astero-astero geratzen ziren, parkera joan eta hizkuntza praktikatzeko. "Ahateen parkera edo txikira joaten ginen, eta txarra egiten bazuen, estalira".

"Noski gomendatzen dudala GurasoLagunen parte hartzea; haur txikiak dituzunean, zaila

da euskara praktikatzeko tarte bat ateratzea, eta horrek aukera ematen dizu", gehitu du.



Blanca Montero



Noelia Calero

"Euskara ikasten jarraitu nahi nuen, kontziliazio familiarra ahalbidetzen zuen ordutegi eta formatu batean; horregatik erabaki nuen GurasoTegin izena ematea", adierazi du Noelia Calero herritarrak. Kontatu duenez, ez da erabaki

horretaz batere damutu, "oso ondo" pasa baitzuen iragan ikasturtean euskara ikasten eta hitz egiten. "Taldekideak atseginak ziren, seme-alaba eta gurasoen arteko giroa oso ona zen". GurasoTegin hasi zenetik gaur egunera arteko bilakaeraz galdetuta, erantzun du zailtasun gutxiago dituela hitz egiteko eta baita adierazi nahi duen horrentzat hitz aproposak bilatzeko ere. "Euskaraz komunikatzea errazagoa da niretzat".

"Iruditzen zait euskara ikasteko eta maila hobetzeko modu dinamikoa eta eramangarria dela GurasoTegi: haurren ordutegiarekin erraz batera daitezke saioak", nabarmendu du Calerok. Hortaz, parte hartu nahi baina zalantzak dituzten gurasoak izena ematera animatu ditu, lotsak eta beldurrak alde batera utzita.

GurasoTegi

GurasoLandia


GurasoLandian haur eta gurasoek egiten dituzten ekimenak "oso onak" direla uste du Nieves Baztan herritarrak. "Jarduerak euskaraz egin ditugu seme-alabekin, une lasai eta onak igaro ditugu". Ikastolari esker jakin zuen egitasmo horren berri, eta izena ematea erabaki

zuen: "Nire semea kalean ere euskaraz bizitzea nahi nuen, ez bakarrik eskolan".

GurasoLandian landutakoari esker, hizkuntza ohiturak aldatzea lortu zuen Baztanek: "Gurasoak ezagutzen nituen ikastolatik, eta gaztelaniaz aritzen nintzen beraiekin, GurasoLandian hasi arte;

euskaraz hitz egiten hasi ginen eta kalean jarraitzen genuen. Asko gustatzen zait nire seme-alabek ni euskaraz hitz egiten entzutea, eta nik ere haiei entzuten diet".

Semearekin aritu zen iaz, eta errepikatze asmoa du, alaba txikiarekin. "Noski parte hartuko dudala aurten ere".



Nieves Baztan

TESTIGANTZAK

Agur hunkigarria Axier Arteagari

Michelin lepo bete dute zaleek

Michelin kirol guneko frontoian jokatu zuen Axier Arteaga *Arteaga II* lasarteoriatarrek ibilbide profesionaleko azken partida hilaren 17an, harmailak bete zituzten lagun, senide eta herrikideen aurrean. Arangurenekin osatu zuen bikotea eta 17-22 gailendu zitzaizkien Artola eta Larunberi. Norgehiagoka hasi aurretik eta ondoren, zenbait aitortza egin zizkieten Intza Kirol Elkarteko kideek, lagunek eta senideek. Arerio izan zuen Iñaki Artolak bi bertso eskaini zizkion. Urduritasunagatik edo, bigarreanean trabatu eta berriro hasi behar izan zuen. Ez ziren entzun zituen errima bakarrak izan, Intzako hiru haurrek ere abestu baitzizkieten. Haiek jasotzen zituen papera oparitu zioten. Aurretik, bere argazki bat oparitu zioten, Intzak, plaka bat, eta Baiko enpresak kamiseta bat. Eutsi zion zirrarari ordura arte Arteagak, baina familiaren oparia jaso zuenean malkoak begiratu zitzaizkion. Hunkituta jarri zioten amak zapia sorbalda gainean eta arrebak txapela. Argazkien ondoren, hitza hartu zuen urteotan lagun izan ditueni eskerrak emateko. "Ezin dut eskertu gabe utzi. Gaur zuek eman didazuena, ibilbide honetan guztian eman didazuena, ez dago dirurik munduan hori pagatuko duenik. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko denoi, banan bana. Segi lanean, aurrera egin eta denok segi pilotan!".

Gauean jarraitu zuen festak, Zubietako Irigoien erretegian. Familia, lagun eta zale, ehun pertsona baino gehiago eseri ziren mahaien bueltan, eta bapo afaldu. Hiru bertso abestuz egin zioten ongietorria Arteagari.



Neurketa hasi aurretik agurra dantzatu zioten kuadrillako zenbait lagunek. Ondoren, onena eman zuen Arteagak. TXINTXARRI



Pilotari lasarteoriatarren familia kantxara atera zenean, ezin izan zien emozioei eutsi. TXINTXARRI



Zaleek pilotalekuko harmailak bete, eta askotan egin zuten txalo. TXINTXARRI



Baiko enpresan lagun izan dituen pilotari ugari bertaratu ziren Michelinera. TXINTXARRI



Afaltzen hasi aurretik bertso eder batzuk abestu zizkieten Arteagari. TXINTXARRI



Afegunean zehar hainbat aitortza eta opari jaso zituen protagonistak. TXINTXARRI

Emaitza ezberdinak ligei hasiera emateko

Ostadar SKTko lau futbol taldek ligako lehen jardunaldia jokatu dute eta zorte ezberdina izan dute. Gorengo Mailako Erregional zein Ohorezko Jubenil Mailako taldeek denboraldi berriko sailkapena estreinatzeke puntuak eskuratu dituzte

Txintxarri

Michelin kirol guneko futbol zelaian baloia biraka hasi da berriz ere. 2022-2023 denboraldia martxan da eta lehen jardunaldiko hainbat partidaz gozatzeko aukera izan zen hilaren 17an.

Ostadar SKTko taldeak izan dira ligako lehen murgiltzen lehenak eta horietako biren neurketak herriko futbol zelaian izan ziren, Ohorezko Erregional Mailakoa eta Ohorezko Jubenil taldearena.

Ohorezko Erregional Mailako norgehiagoka izan zen Michelin kirol guneko udako izotzaldia urtzen lehenak. Zumaiaiko FT izan zuen aurrez aurre talde urdin-beltzak goizean.

Partida zaila izan zen Leire Gartziak zuzentzen dituen jokalarientzat. Nahiz eta ahalegindu, Zumaiaikok aukerak zapuztu zizkion etxeko taldeari.

Tamalez, aurkariak ederki baliatu zituen bere arrisku egoerak eta 0-6 nagusitu zen.

Arratsaldean, berriz, bestelako egoera izan zen. Ohorezko Jubenil taldeak San Marcialen aurka jokatu eta garaipena erdietsi zuen, 2-1.



Ostadar SKTko jokalaria aurkariarengandik ihesi egin nahian. TXEMA VALLES

Etiket kanpo jokatuak norgehiagoketan Ostadarreko taldeek ere zorte ezberdina izan zuten.

Gorengo Mailako Erregionalak puntu bat ekarri zuen Andoaindik. Euskaldunaren aurka neurtu zituen indarrak eta bana berdindu zuten.

Eta Ohorezko Kadete Mailako taldeak gutxiatik galdu zuen Kostkasen aurkako partida, 2-1.

Lau talde horiek bigarren jardunaldiari egingo diote aurre, hilaren 24an eta 25ean. Alabaina, Ostadar zein Texas Lasartearra

elkarteetako gainerako taldeek denboraldiari hasiera emango diote (ikus agenda), Texas Lasartearra I. jubenilak izan ezik. Iker Moreno eta Gustavo Balantaren taldeak atsedena du.

Neurketen artean, nabarmentzekoa da Erregional 1. Mailako Texas Lasartearra-Ostadar derbia. Partida berezia izango da zuri-urdinentzat. Erregional mailari uko egin zioten duela bost urte. Orain, jubeniletatik igo den taldea oinarri, maila berriari jokatzeko gogotsu dago elkarteak.

Ligan, garaipena; European, ausardia

Real Sociedad taldeak bi hitzordu garrantzitsu izan zituen hilaren 17an eta 20an: Ligako lehen partida eta Txapeldunen Ligako kanporaketa.

Ligan lehen jardunaldian epaileen grebarengatik jokatu ez izanaren arantzaz kendu zuen Natalia Arroyok zuzentzen duen taldeak eta lehiaketari hasiera ederra eman zion hilaren 17an, Villarreal CF 2-0 garaituz. Neurketa berdinduta hasi arren, seigarren minutuan lehen gola egin eta talde txuri-urdina jokoaz nagusitu zen. Bigarren zatian ere, Realak jabe izan zen eta kornar

batean lortu zuen saria. Aldea handitzeko aukera gehiago ere izan zituen, baina ez zen posible izan.

Hilaren 20an, berriz, Europako Txapeldunen Ligako kanporaketako joaneko neurketa jokatu zuen Bayern München aurka, Reale Arena zelaian. Une historikoa izan zen eta 11.479 zaletu bildu ziren bertan, taldea animatzeko.

Realari partidaren sartzea kosta zitzaion. Minutuak aurrera joan ahala zelaian kokatu eta bi taldeek aukerak sortu zituzten. Atsedendia

baino lehen, tamalez alemaniarrek gola egin zuten. Bigarren zatian minutuak falta izan zitzaizkion talde txuri-urdinari. Ederki egin zion aurre Bayerni eta partida amaitzeko zegoela, aukera garbi batzuk ere izan zituen berdinketa lortzeko baina baloia ez zuen sartu nahi izan.

Aurkako emaitza lortu arren, oraindik ez dago ezer erabakita. München bigarren norgehiagoka jokatu dute hilaren 29an, eta ezustekoa emateko gai direla erakutsi zuten txuri-urdinek Donostian.

Iraia Iparragirre herritarrek aukeratik ikusi zituen bi partidak.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Mariño CD - Ostadar SKT
Igandea, 17:00. Ugalde-Ventas, Irunen.

GORENGO MAILA

Ostadar SKT - Oiartzun KE B
Larunbata, 15:30. Michelin kirol gunean.

ERREGIONAL 1. MAILA

Texas Lasartearra - Ostadar SKT
Larunbata, 17:30. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO JUBENIL MAILA

Internacional CD - Ostadar SKT
Larunbata, 15:30. Matigoxotegi, Donostian.

JUBENIL 1. MAILA

Danena KE C - Ostadar SKT B
Larunbata, 15:30. Elbarrena, Zizurkilen.

Ostadar SKT C - Lazkao KE B
Igandea, 11:40. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO KADETE MAILA

Ostadar SKT - Hondarribia FE
Igandea, 09:45. Michelin kirol gunean.

KADETE 1. MAILA

Texas Lasartearra CF - Kostkas KE E
Larunbata, 09:45. Michelin kirol gunean.

Ostadar SKT B - Arrupe Chaminade CD C
Larunbata, 13:05. Michelin kirol gunean.

Sporting de Herrera - Ostadar SKT C
Larunbata, 12:00. Herrera, Donostian.

OHOREZKO INFANTIL MAILA

Euskalduna SD - Ostadar SKT
Larunbata, 10:00. Ubitarte, Andoainan.

INFANTIL TXIKI, AURRETIKO FASEA

Ostadar SKT - Urnieta KE
Larunbata, 11:30. Michelin kirol gunean.

ARETO-FUTBOLA

GIPUZKOAKO KOPA, KANPORAKETA

Eskoriatza KE - Eguzki AF
Larunbata, 20:00. Manuel Muñoz kiroldegia, Eskoriatzan.

SASKIBALOA

JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA

Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT
Larunbata, 16:00. Benta Berri kirol., Donostian.

KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA

Ostadar SKT - BKL Pagoeta
Larunbata, 09:45. Maialen Chourraut kirol.

PILOTA

ESKUZ BINAKA, JUBENIL 1. MAILA

Intza - Zazpi Iturri 1
Larunbata, 16:15 (2. partida) Michelin kirol guneko pilotalekuan.

ESKUZ BINAKA, JUBENIL 2. MAILA

Intza - Oiarpe 2
Larunbata, 16:15 (1. partida) Michelin kirol guneko pilotalekuan.

MENDIA

4. MENDI FESTA

LOTMEKO kideek 4. Mendi Festa antolatuta dute. Parte-hartzaileek bi ibilbide egingo dituzte luzea (30 km. eta +2.000 m) eta motza (13 km. eta +610 m.)
Igandea, 07:00 eta 09:00. Lasarte-Oria.

Garaipena lortuz hasi dute denboraldia saskibaloit taldeek

Junior zein Errendimendu Zilar mailetako taldeek Aloña Mendi eta Goizper garaitu dituzte lehen jardunaldian

Txintxarri

Ederki hasi dute denboraldia Ostadar SKTko saskibaloit taldeko ordezkariak. Junior Errendimendu Zilar taldeko kideek 36-32 irabazi zituzten Aloña Mendiri etxean, Michelin kirol gunean jokatu zen partidari. Liga berri eta ezezaguna dute aurretik urdin-beltzek. Aurten sortu den kategoria da, eta ez dakite zein mailako taldeekin aurkituko diren aurrez aurre.

Lehen neurketan, Aloña Mendi izan zuen aurkari. Indarrak pareko hasi ziren bi taldeak. Laurdena aurre joan ahala ordea, talde urdin-beltzeko kideak garaipena erdiesteko aukera zutela ikusi zuten. Lehen laurdena 13-8 amaitu zuten eta bigarren nahiz hirugarrena borrokatuagoak izan ziren (12-12 eta 9-8). Azkenekoan, berriz, ez zen nabarmentzeko askorik izan 2-4ko partziala egin zuten.

Andoni Alduncin entrenatzailea pozarren agertu da lehen garaipenarengatik. "Lasaitasunez hasi ginen jolasten eta hirugarren minututik aurrera, markagailuan

aurrean egon ginen partida osoa", adierazi du juniorren prestatzaileak. Momentu garrantzitsuetan jokalariek ezkutatu ez zirela eta defentsan gaizki ibili ez zirela ere nabarmendu du.

Hala ere, jokoa hobetzeko lan egin behar dutenaren jakitun da: "Oraindik jokoa ez da ikusgarria. Jokaldiak, intentsitatea, fisikoa... asko hobetu beharra dugu". Horregatik, hilaren 24an, Antigua Luberrri taldearen aurka duten partida prestatzeko gogor lan egingo dutela onartu du.

Kadetea ere nagusi

Kadete Errendimendu Zilar Mailako taldeak ere garaipena lortu zuen Bergaran.

Jonatan Reinok zuzentzen duen taldea nagusi izan zen lehen laurdenetik (4-16). Goizper Group BKLk ahaleginak egin zituen, eta bigarren zein hirugarren laurdenak berdinduagoak izan ziren (13-14 eta 12-16). Azken partzialean, berriz, ezinezkoa egin zitzaion aurkariari erritmoa mantentzea, eta 6-14 galdu zuen.

Herritarrak indartsu, itsas zeharkaldietan

Buruntzaldea IKTko kideak eta hainbat herritar itsas zeharkaldietako probetan lehiatu dira abuztuan eta irailean. Ederki aritu dira denak eta, esate baterako, igeriketa taldeko Itsaso Tolosa podiumeko hirugarren mailara igo da Irlako Igeriketa Zeharkaldian

Txintxarri

Igeriketa zeharkaldi denboraldia amaitu da. Ekainetik irailera, itsasoetan zein lakuetan ibili dira igerian herriko taldeetako kide zein herritarrak, nor baino nor. Proba batzuetan lehen postuetan izan dira, gainera. Buruntzaldea IKTko Itsaso Tolosa, esate baterako, Irlako Igeriketa Zeharkaldian podiumeko hirugarren mailara igo zen.

Lehiatu den azken proba ordea, VIII. Flysch Beltza izan da, hilaren 17an. Herritarrik ez zen irteera puntuetan izan, baina Buruntzaldea IKTko bi ordezkariak parte hartu zuten proba motzean: Igor Amantegi eta Manu Santos.

Mutriku eta Deba arteko 3.000 metroko igerialdia egin zuten parte hartzaileek. Amantegik 55 minutu eta 51 segundo behar izan zituen helmugara iristeko: sailkapen orokorrean hogeigarren eta Master+ mailako bosgarren izan zen. Santosek, aldiz, ordu bat, 19 minutu eta 28 segundo

egin zituen helmugan, 89. postua eskuratu zuen.

Astebete lehenago ere, hilaren 10ean, Donostian izan zen lehia, Kontxa Badiako Igerialdia.

Buruntzaldea IKTko Igor Amantegi eta Manu Santosekin batera Asier Gorostegi taldekide eta herritarrak hartu zuen parte. Infantilen zeharkaldian ere, igeriketa taldeko ordezkariak izan zen: Iñaki Garcia eta Mario Amantegi.

Gaztetxoek 740 metroko ibilbidea burutu behar izan zuten Nautiko inguruan. Mariok zazpi minutu eta 23 segundo behar izan zituen proba egiteko eta 17. postua eskuratu zuen. Garciak, berriz, zortzi minutu eginez, 39. iritsi zen.

Absolutu mailako igerilariak 2.220 metroko bidea osatu zuten badia osoan zehar igerian eta Igor izan zen taldeko azkarrena, 35.05eko denborarekin; ondoren Gorostegi iritsi zen, distantzia hori 38 minutu eta 54 segundoan



Igor Amantegi eta Itsaso Tolosa, Irlako zeharkaldiaren ostean. BURUNTZALDEA IKT

amaituz, eta jarraian Santos heldu zen, 42.16 eginda.

Lehen postuetan

Abuztuan zehar ere izan dira hitzorduak eta herritarrek ez dute huts egin.

Hil horretako 14an Buruntzaldea IKTko Mario Amantegik

estreinakoz egin zuen zeharkaldi bat. Vieux-Boucau-les-Bains (Frantzia) herriko Port d'Albret lakuan antolatutako 600 metrotako proba egin zuen Amantegik.

Igeriketa taldeko arduradunek jakitera eman dutenez, "hasiera batean bere burua egoera berri baten aurrean ikusi bazuen ere, beldurrak alde batera utzi eta oso gustura geratu zen egindakoarekin".

Hurrengo egunean, berriz, Donostian Paseo Berriko Igerialdia jokatu zen. Itsaso zakarrari eta olatu handiei aurre egin zieten igerilariak.

Oscar Gil eta Garikoitz Lopetegi herritarrak zein Buruntzaldea IKT Igor Amantegi eta Itsaso Tolosa bertan izan ziren parte hartzen. Zurriola hondartzan hasi eta Paseo Berriko zehar Kontxako hondartzara arteko 2.959 metroko distantzia osatu zuten guztiek.

Tolosak 49 minutu behar izan zituen; emakumezkoen artean sailkapen orokorreko bosgarren postua lortu zuen, eta senior mailako laugarrena. Lopetegik (50.02) master mailako bosgarren postuan amaitu zuen lasterketa. Amantegik, berriz, 52 minutu eta 45 segundo egin zituen helmugan eta Gilek 01.04.01 behar izan zuten ibilbidea egiteko.

Hilabetea bukatzeko, 28an, Buruntzaldea IKTko bi kideak, Amantegi eta Tolosa, berriro ere elkarrekin izan ziren, Irlako Igeriketa Zeharkaldian. Orduko

horretan June Apalategi herritarra ere bertan izan zen lehiatzen.

Santa Klara uharteari 3.000 metroko ibilbidearekin bira emanez. Tolosak podiumera igotzea lortu zuen; 44.41eko denborarekin, emakumezko mailako hirugarren izan zen. Apalategik bere mailako zazpigarren postuan amaitu zuen proba, 48.36 eginez. Amantegik, berriz, 50.45eko marka egin zuen, 76. postua eskuratu zuen.

Entrenamenduak eta irteera

Itsasoko denboraldia amaituta, Buruntzaldea IKTko igeriketa eskolarra, federatua eta lehiaketa gabeko parte hartze igeriketa mailako kideak hilaren 19an hasi ziren igerilekuan lanean.

Hala ere, hilaren 5ean, 6an eta 7an igeriketa taldeko entrenatzaile eta hainbat partaidek Zuhatzan eman zioten hasiera ikasturteari. Hernaniko beste igerilari batzuekin batera partekatut zizuten hiru egun. Harremanak sendotzeko egonaldia izan zen. Hainbat kirolez –arrauna, windsurf, beisbola eta eskaladagoa zateaz gain, taldean elkarlanean jarduten ere ikasi zuten.

Bestalde, master mailakoek urriaren 3an hasiko dituzte saioak. Astelehen, asteazken eta ostiraletan 07:10ean eta 16:10ean entrenatu ahalko dute. Maila horretan izena emateko aukera ireki du Buruntzaldea IKTko.

Aitor Manso hirugarren sailkatu da Jaizkibelgo igoeran

Lopez, Muga eta Kortajarena herritarrek ere lehiatu dute proba. Maila ezberdinetan lehen postuetan izan dira

Txintxarri

Jaizkibelgo igoeraren 44. aldia lehiatu zen, hilaren 17an. Eserleku bakarreko zein turismo mailako 69 ibilgailu izan ziren proban eta horietatik lau herritarrenak ziren: Aitor Manso, Alejandro Lopez, Pablo Muga eta Mikel Kortajarena.

Parte hartzaileek 5.466 metroko ibilbidean bi entrenamendu saio eta bi lasterketa kronometratu egin zituzten. Joseba Iraola bizkaitarra izan zen guztien artean azkarrena eta Norma NP01 ibilgailuan 2.19,101eko

denbora eginez, 2018 urtean berak ezarritako errekorra hautsi zuen. Bigarren sailkatu zen Ekaitz Ordoki Norma M20Fc bat gidatzen (2.36,464) eta podiuma ixten, Aitor Manso herritarra.

BRC B49 ibilgailuarekin eserleku bakarreko mailan lehiatu zen Lasarte-Oriako gidari gaztea. Eta sailkapen orokorreko sariaz gain, 8. mailako garaipena ere lortu zuen.

Manso pozarren dago egindako lanarekin. Igoeraz igoera denbora hobetzen joan zen eta azkenekoan, 2.39,235eko marka egitean 8.



Aitor Manso (eskubian), Jaizkibelgo igoerako podiumean. A. MANSO

mailako errekorretik gertu izan zela jakitera eman digu: "Lau lasterketak oso ondo joan ziren. Azkenekoan, 8. mailako errekorra hausteko puntuan izan nintzen. Segundo eta erdira geratu nintzen".

Iraolaren eta Ordokiren Norma ibilgailuen potentziaren jakitun, garaipena zail zegoela onartu du: "Alde handia dago ibilgailu horien eta nirearen artean. Zaila da horiek gainditzea".

Lehen postuetan

Alejandro Lopez, Pablo Muga eta Mikel Kortajarena herritarrek, berriz, turismoen lehiaketan parte hartu zuten.

Lopezek BMW 316arekin seigarren denborarik onena egin zuen (2.59,893), eta 3. mailan bigarren sailkatu zen.

Mugak, berriz, Peugeot 306a gidatzen 3.17,852 denbora egin eta 7. mailako laugarren izan zen.

Azkenik, Kortajarenak entrenamenduen bigarren saioan Citroën Saxo VTSaren bolante motorra hautsi eta ezin izan

zuen lasterketa kronometratuetan lehiatu.

Txapelketa amaiera

Hilaren 8ko 1596. zenbakian Jaizkibelgo proba Euskadiko Mendiko Igoeren Txapelketako azkena zela argitaratu bagenuen ere, okerreko informazioa emagenuen. Azkena Urrakiko igoera izango da, urriaren 22-23an.

Bertan erabakiko da denboraldi honetako txapelduna. Oraingoan, sailkapeneko orokorreko buru da Manso, baita 8. mailan ere. Tamalez, herritarrak zail ikusten du orokorreko lehen postua mantendu ahal izatea: "Iraola eta nire artean 50 puntuko aldea dago. Ni buru nago bera Opakuan aurkeztu ez zelako. Urrakin Iraolak proba ez amaitzea da txapela janzteko dudak aukera bakarra".

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Pili
Libratuko zinela uste al zenuen? Extremadurako produktuen hamaiketako goxo-goxoaren ostean, ezin ahaztu. Zorionak Ttakuneko lankideen partetik!!!



Arantxa eta Cayetano
Zorionak Arantxa eta Cayetano! Zuen egun berezia iritsi da, 50 urte, urrezko ezteiak! Segi horrela elkar maitatzen urte askoan, egun zoragarria pasa. Muxu handi bat familiaren partez.



Iñaki
Parrandatan bakarrik ikusten zaitugu Lasarte-Oriatik!! Ea noiz egiten diguzun bisita bat. Zorionak Ttakuneko lankide ohien partetik!!

SUDOKUA

	4		6			5
5			8		4	
6		3		9		7
	6		1	7	8	2
		7		2		8
			3		9	7
	5	6		1	7	4
1			7		6	
		2				3

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.


Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.


Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu zorion agurrak.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 23




Larunbata, 24




Igandea, 25




Astelehena, 26




Asteartea, 13



Asteazkena, 28



Osteguna, 29



OHARRA

Udako Txoko zein kanpaldietan galdutako gauzak jasotzeko epea

Ttakun Kultur Elkarateak jakinarazi du Udako Txokoen zein kanpaldien ostean jasotako haur eta gaztetxoaren arropa eta hainbat objektu bulegoan daudela eskuragarri.

Ordutegia honakoa da: astelehena, 16:00etatik 18:00etara; asteartetik ostegunera, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara eta ostiralean, 09:00etatik 13:00etara.

Hilabete amaiera arte izango da gauzak berreskuratze aukera.



Jaio

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 23	ACHA-ORBEA	EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 24	URBISTONDO	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 25	URBISTONDO	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 26	GANDARIA-URIBE	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 27	DE ORUE	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 28	DE MIGUEL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 29	LASA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00

M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUNOA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERRI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINZTA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA
ERRENTAN EMAN
Apartamentu bat dut Benidormen, eta alokatzeko eskaintzen dut irail eta urrian, hamabost egunez edo hilabete osoz. Harremanetarako zenbakia: 677 35 18 35 (Lourdes)

Etxebizitza bat alokatzen dugu Basaundi bailaran. Sukaldea, egongela, bi logela, komuna eta balkoi handi bat ditu. Harremanetarako zenbakia: 678 37 40 72 (Joxe Mari).

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratun apartamentua alokagai. 60 metro karratun lorategia du, bista paregabeak, baita igerileku komunitarioa ere. Irailera arte alokagai, hamabostaldika. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 666 88 0917.

PARTEKATU
Neska langile bat naiz eta etxebizitza osatzeko beste bi neska arduratsu eta garbiren bila nabil. Etxea argitsua, handia da eta gela guztiek kanpo aldera ematen dute. Herri erdian dago, topo eta autobus geltokitik oso gertu. Harremanetarako zenbakia: 666 32 05 20.

TANA
ESKAINITZA
Unibertsitateko ikasketak egiten ari den edota

amaitu dituen pertsona behar dugu, DBHko 3. mailako ikasle bati eskola partikularrak emateko. Astean hiru egunetan beharko genituzke eskolak eta azterketa garaian eskola extrak. Interesatuak honako telefono zenbakira dei dezakete: 630 73 29 49.

15 urteko neska bat euskara klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Harremanetarako zenbakia: 631 57 15 40 (Arratsaldez deitu).

8 urteko neska bat ikastolara eramateko pertsona bat behar da. Ikasturte osoa. Harremanetarako zenbakia: 607 35 87 15 (WhatsApp)

ESKARIA
Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

SALEROSKETA
SALDU
Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako, ekonomokarako... Harremanetarako zenbakiak: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK
HEZKUNTZA
Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsaldez. Harremanetarako zenbakia: 688 65 56 93.

Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrak emateko zein edozein adineko umeak zaintzeko

eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 644 98 03 49.

Zientzia esparruko errefortzu saio partikularrak eskaintzen ditut, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zenbakia: 697 45 97 66.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Nerea Segura, Lierni Rekondo
eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:
Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene
Iraola, Egoitz Epelde, Endika Merban,
Gorka Morales, Sergio Hernandez,
Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzua
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

LARUNBATA 24

LASARTE-ORIA Urteurren jaiak
Dinbi Banda batukada taldeak 10 urte bete dituela ospatuko du.

11:00etan, Djole izeneko dantza afrikar estiloa ikasteko tailer irekia, Itzi Kan irakaslearen eskutik, Okendo plazan. Bertaraten den edonork parte har dezake.

12:30etan, batupoteoa, herriko tabernetan barrena.

14:30etan, taldekide ohiek eta gaur egungoek elkarrekin bazkalduko dute, Extremadura Etxean.

19:00etan, kontzertuak: Xilikonai eta The Noise Makers, Okendon.

22:00etan, Emilio DJ, Avenida tabernan.

Egun osoan zehar, taldearen ibilbidea erreparatu den duen atzera begirako argazki erakusketa, Okendon.

Herriaren zehar. Eguraldi txarra egiten badu, Oriarte institutuko Landaberri eraikinean egingo dituzte jarduerak.

OSTIRALA 30

LASARTE-ORIA Auzoko jaiak
Hiru urteko eten behartuaren ostean, indar betean itzuliko dira festak Sasotara.

18:00etan, txupinazioa eta pregoia, Andatza plazan.

18:00etan, kirol jarduerak LH3-DBH3 maila arteko gazteentzat, Uzturre plazan.

19:00etan, pintxo potea, taberna hauetan: Txoko, Mostatxo,



LASARTE-ORIA Ospakizuna. Dinbi Banda batukada taldeak egun osoko egitaraua prestatu du 10 urte bete dituela ospatzeko: Djole dantza afrikarra ikasteko tailerra, batupoteoa, taldekideen bazkaria, kontzertuak eta DJa. Horrez gain, atzera begirako argazki erakusketa bana jarri dute Jalgi kafe antzokian eta Avenida tabernan, azken hamarkadako hainbat irudi erabilia. Horietako zenbait TXINTXARRI aldizkariarenak dira.

Erdigunea. Eguraldi txarra eginez gero, Oriarte Landaberri. Hilaren 24an.

Jaizkibel, Peña, Txindoki, Santxo eta 2KN.

19:00etan, minidiskoa Andatza plazan.

20:00etan, txokolate jana Aitonak okindegiaren eskutik, Andatza plazan.

20:30etan, zuzeneko musika emanaldia, Andatza plazan.

23:30etan, zezensuzkoa, Andatza plazan.

00:00etan, DJ Nemux, Andatza plazan.

Sasoeta auzoan zehar, arratsaldean eta gauetan.

LARUNBATA 1

LASARTE-ORIA Auzoko jaiak
Festetako bigarren egunean egingo dituzte jarduerak gehienak.

11:30etan, tailerrak eta aurpegia margotzeko saioak, Dulce Tentacion dendan, Jaizkibel plazan.

11:30etan, futbolin txapelketa Jaizkibel plazan: gurasoak seme-alaben aurka.

13:00etan, LOZET elkartearen buruhandiak ibiliko dira auzoan barrena.

ZINEMA

USURBIL

URBIL

'Ticket to Paradise'

Ostirala 23: 15:55, 19:20, 21:55.

Larunbata 24: 15:55, 19:20, 21:55.

Igandea 25: 15:55, 19:20, 21:55.

'La vida padre'

Ostirala 23: 16:55.

Larunbata 24: 16:55.

Igandea 25: 16:55.

'Don't worry darling'

Ostirala 23: 16:00, 19:00, 22:00.

Larunbata 24: 16:00, 19:00, 22:00.

Igandea 25: 16:00, 19:00, 22:00.

'Tadeo Jones 3, la tabla'

Ostirala 23: 15:45, 18:20, 20:40.

Larunbata 24: 15:45, 18:20, 20:40.

Igandea 25: 15:45, 18:20, 20:40.

'Modelo 77'

Ostirala 23: 16:15,

19:10, 22:10.

Larunbata 24: 16:15, 19:10, 22:10.

Igandea 25: 16:15, 19:10, 22:10.

'La vuelta al mundo en 80 días'

Ostirala 23: 15:50, 18:05, 20:15.

Larunbata 24: 15:50, 18:05, 20:15.

Igandea 25: 15:50, 18:05, 20:15.

'Spider-Man: No Way Home'

Ostirala 23: 18:00,

19:10, 22:10.

Larunbata 24: 18:00, 21:30.

Igandea 25: 18:00, 21:30.

'Padre no hay más que uno 3'

Ostirala 23: 18:30.

Larunbata 24: 18:30.

Igandea 25: 18:30.

'Orphan: First Kill'

Ostirala 23: 22:30.

Larunbata 24: 22:30.

Igandea 25: 22:30.

IGANDEA 2

LASARTE-ORIA Auzoko jaiak
Sasoeta auzoko festetako azken eguna izango da. Goizez eta arratsaldean aurrera eramango dituzte programako jarduerak:

11:30etan, haur eta gaztetxoentzako puzgarriak, Andatza plazan.

11:00etan, Laser Tag jokoa, Andatza plazan.

12:30etan, patata tortilla txapelketa Andatza plazan. Jakiak 11:00etatik 12:30era entregatu behar dira.

13:00etan, LOZET elkartearen buruhandiak ibiliko dira auzoan barrena.

16:00etan, haurren danborrada, Andatza plazan.

17:00etan, errifen zozketak, Andatza plazan.

17:30etan, amaierako traka, Andatza plazan.

Sasoeta auzoan zehar, goizez eta arratsaldean.

Leire Bergararen 'Bizipoza' argazkiak irabazi du lehiaketa

Bost argazki bozkatuenen artean aukeratu du epaimahaiak onena; egileak Aldikaren produkto sorta eder bat jasoko du

Txintxarri


TXINTXARRI aldizkariaren udako argazki lehiaketa Leire Bergara herritarraren *Bizipoza* argazkiak irabazi du. Irakurleek hori eta beste lau irudi bozkatu zituzten gehien, eta azken hitza

hiru argazkilarik profesionalen artean osatutako epaimahaiak izan du: Idoia Telleria, Aitzol Etxegoien eta Isaac Farre izan dira kideak.

Argazkiaren izenburuarekin hitz jokoa eginez, Bergarak poz

ederra hartuko du, Aldika enpresaren produktuz osatutako sorta eder bat eramango baitu etxera. Zorionak, Leire!

TXINTXARRI-ren lantaldearen izenean, eskerririk asko aurtengo aldian parte hartu duzuen guztioi, eta egon zaitezte adi, ikasturtean zehar horrelako lehiaketa gehiago antolatzen jarraituko baitugu, eta sari ederrak ematen! Eta jakina, eskerririk asko Aldika enpresari ere, horrelako ekimenak eta aldizkaria babesteagatik.



'Bizipoza' argazkia aukeratu du hiru argazkilarik osatutako epaimahaiak. TXINTXARRI



Eskuratu kamiseta

13 euro helduak 10 euro haurrek



Sarean edo
Itakuneko bulegoan





Muntteri AEK euskaltegia

MATRIKULAZIOA ZABALIK eman izena!

A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
AURREZ AURREKO ESKOLAK (tutoretzekin)
AUTOIKASKUNTZA
AZTERKETA OFIZIALAK PRESTATZEKO IKASTAROAK
GURASO TALDEAK
MINTZA-TALDEAK: Astean 2 egunez.



EUSKARA
IKASTEKO BIDE LAGUN ONENA

Geltoki kalea 17 Lasarte-Oria | 607 62 52 33 | lasarte@aek.eus Bulego ordutegia: 11:00-13:00 / 17:00-19:30

Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2022-23





IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatekoak
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

AGENTZIAK

- Udaleko euskaltegia
- Muntteri-AEK euskaltegia

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:
 - 1.- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2.- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3.- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleek kasuan bakarrik)
- Gutxienez %85eko asistentzia eta gutxieneko aprobetxamendua gaitutia.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

ONDO iBiLi!

Informazio gehiago
 Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943-37 61 84
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus